



BIZIKLETAK HEGAZKINETAN (2022ko ekainean eguneratua)

Beti erraza ez bada ere, distantzia laburreko hegaldietan izan ezik, posible izaten da bizikletak hegazkinez garraiatzea, bizikleta elektrikoak izan ezik, hegazkin konpainia gehienek ez baitituzte bizikleta mota horiek onartzen.

Konpainiek pertsona bakoitzeko 20-25 kg-ko ekipajea eramateko aukera ematen dute, bizikleta barne.

Ekipajeen aireko garraioari buruzko araudia askotarikoa da, eta, beraz, aukeratu duzun konpainiarekin hitz egin beharko duzu, edo konpainiaren webgunean kontsultatu, enpresaren baldintzak eta tarifak zein diren jakiteko.

Konpainia gehienek exijitzen dute bizikleta paketatuta egotea edo bizikletak garraiatzeko poltsa batean eramatea. Lehenengo aukera hartzen baduzu, bizikletaren neurriak dituen kartoizko kaxa bat eska dezakezu zure ohiko dendan (soka batekin eskuleku bat egin dezakezu eta errazago garraiatu), edo, bestela, aireportuan bertan eros dezakezu (20 euro, gutxi gorabehera). Kontuan izan horiek direla zure bizikleta gutxien babestuko dutenak kolpeak jasoz gero.

Garraio-poltsak praktikoagoak dira, erabilgarriagoak direlako (gurpilak izaten dituzte) eta tolestu egin daitezkeelako etxean gordetzeko; gainera, iraunkorragoak dira eta oso ondo babesten dute bizikleta. Hori bai, garesti samarra da, askotan erabiltzen ez bada.

Bizikleta garraiatzeko maleta zurrinak ere badaude; baina, bizikleta erabat babesten badute ere, oso astunak dira, etxean leku asko hartzen dute eta garestiak dira.

Gurpilek hustuta egon behar dute, presio-aldaketaren ondorioz hegaldian ez-tanda egin baitezakete. Eraberean, aurreko gurpila eta pedalak desmuntatu behar dira, eta eskulekua urkilaren edo koadroaren paraleloan biratu.

Bizikleta ondo enbalatzea eta bidaiarako prestatzea da onena, ezbehar bat izan nahi ez badugu.

Hona hemen gomendio batzuk:

1. Bizikleta ahalik eta lauen gera dadin, eskulekua biratu beharko duzu, koadroarekiko paraleloan geratu arte.
2. Komenigarria da, halaber, erradioak estaltzea, kalterik paira ez dezaten eta desitxura ez daitezen. Jarlekua jaistea ondo dago, eta baita ere aldagailuak,



balaztak, argiak, platerak eta urkilak babestea plastikozko burbuilekin edo egunkariekin...

3. Normalean, airelineek 30-32 kilo arte onartzen dute kaxa bakoitzeko. Kutxan beti tarteren bat geratzen denez, erramintak, kaskoa, zakutoren bat, eta kanpin-denda sar ditzakezu bertan, edo lozakua bera, zabaldua, babesgarri ona izango baita.
4. Bukatzeko, itxi ondo kutxa zinta itsasgarria erabiliz. Asko erabili beharko duzu, bestela kutxa erraz puska daiteke.
5. Kaxari itsatsi orri batzuk, zure izena, abizenak, helbidea eta telefono zenbakiak dituztela.
6. Bizikletak neurri berezietako ekipajerako zinta batean fakturatu ohi dira. Beraz, hobe duzu fakturatzeko tokira garaiz iristea; horrela arazoak eta luzeegi itxarotea saihestuko dituzu.
7. Ekipajea jaso behar duzunean, kontuan hartu zenbaitetan, ekipaje berezizat hartzen badute, beste ate batetik ematen dutela.